

IKERKETA ESPERIMENTALAREN ERRUBRIKA

Ikaslearen izena: _____

ARLOAK	4	3	2	1
Hipotesia	Oso ondo azalduta dago. Bat dator eta koherentea da aurretiko ezagutzeekin, eta erantzuten dio galderari/erronkari.	Koherentea da aurretiko ezagutzeekin eta egiten den galderarekin/erronkarekin.	Galderari/erronkari erantzuten saiatzen da, baina ia ez du aurretiko ezagutzarik erakusten.	Ez dator bat eta ez da koherentea egin den galderarekin/erronkarekin.
Kontsultatutako informazioa	Informazio-iturri fidagarri, adierazgarri eta eguneratu asko eta era askotakoak erabiltzen ditu (bibliografia, webgrafia, elkarrizketak...). Irudiak, grafikoak, marrazkiak eta abar ere erabiltzen ditu, eta horiei esker informazio gehiago ematen da.	Era askotako informazio-iturriak erabiltzen ditu (bibliografia, webgrafia, elkarrizketak...), baina ez dira guztiak adierazgarriak. Irudi, grafiko edo marrazkiren batekin osatzen du informazioa.	Informazio-iturri gutxi erabiltzen ditu. Guztiak daude gaiarekin erlazonaturik, baina batzuk bakarrik daude eguneratuta eta dira fidagarriak. Baliabide osagarriak (irudi, grafiko, marrazkiren bat eta abar), erabiltzen diren kasuetan, ez dira adierazgarriak.	Kontsultatutako informazio-iturriak ez dira fidagarriak, edo ez daude eguneratuta. Iturri gutxitara jo da, ez dute informazio nabarmenik ematen eta batzuk ez daude gaiarekin erlazonaturik.
Esperimentuaren garapena	Azaldutako prozedura zorrotz betetzen du. Tresnak eta materialak zehaztasunez erabiltzen ditu. Arretaz behatzen du, ereduak bilatzeko eta loturak egiten ditu aurretiko ideiekin.	Azaldutako prozedura betetzen du. Tresnak eta materialak behar bezala erabiltzen ditu. Zailtasunen bat du ereduak aurkitzeko eta aurretiko ideien eta esperimentuan bildutako datuen arteko loturak egiteko.	Prozedurari ez dio oso zehatz jarraitzen, eta tresnak eta materialak ere ez ditu behar bezala erabiltzen. Datuak erregistratzen ditu, eta loturak ere egiten ditu, baina ez modu oso ordenatuan.	Esperimentuaren urratsak ez ditu behar bezala jarraitzen. Materiala eta tresnak ez ditu behar bezala erabiltzen. Behatutako datuak era desordenatuan erregistratze ditu, eta aurretiko ezagutzeekin ez du loturarik egiten.
Azalpen zientifikoa: ondorioak eta funtsezko ideiak	Behar bezala erantzuten dio egindako galderari/aurkeztutako erronkari. Aurretiko esperientzia eta ikerketaren bidez eskuratutako ezagutzak erabili ditu azalpena osatzeko. Argi eta era ordenatuan adierazten ditu gaiaren funtsezko ideiak, eta hiztegi egokia erabiltzen du. Galdera gehiago sortzen ditu	Behar bezala erantzuten dio egindako galderari/aurkeztutako erronkari. Ideiak argi eta erraz adierazten ditu, eta terminologia egokia erabiltzen du.	Galderari/erronkari erantzuten dion arren, era desordenatuan eta zehaztugabea ematen ditu ondorioak.	Galderari/erronkari ez dio behar bezala erantzuten, eta ez ditu gaiaren funtsezko ideiak identifikatzen.

